



2012KO EKAINAREN 28KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabiko ekainaren hogeita zortzian, iluntzeko zazpi eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Andoitz Garmendia Zubeldia, Maialen Aldasoro Aranburu, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu Estensoro, Ane Irastortza Izagirre, Inazio Estensoro Eskisabel, Milagros Madrazo Rada, Felix Urkola Iriarte eta Juan Manuel Serna Portugal.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2012ko maiatzaren 31an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- C.A.F.EKO URBANIZAZIO LANEN 4. OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

C.A.F.eko urbanizazio lanen obra zuzendaritza daramaten Pedro Izaskun arkitektoa eta Javier Santos arkitekto teknikoak lanen 4. obra-egiaztagiria luzatu dute. Laugarren obra-egiaztagiri honen zenbatekoa BERREHUN ETA LAUROGEITA HAMAR MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA BOST EURO ETA LAUROGEITA HAMABOST ZENTIMOTakoa (290.525,95 €) da. Lan hauek Construcciones Iturrioz, S.A. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, aho batez, C.A.F.eko urbanizazio lanen laugarren obra-egiaztagiri hau onartzea erabakitzen du.

IV.- KIROLDEGIKO BIRMOLDAKETA 4. FASEAREN LANEN 10. OBRA-EGIAZTAGIRIA, LIKIDAZIOA.-

Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren birmoldaketa lanen obra zuzendaritza daramaten LKS Ingeniería, S. Coop.ko Eva Caceres arkitektoa eta Nagore Lasa arkitekto tek-



nikoek 4. faseko hamargarren obra-egiaztagiria, likidazioa dena, luzatu dute. 4. faseko 10. obra egiaztagiriaren zenbatekoa LAUROGEITA SEI MILA EHUN ETA BEDERATZI EURO ETA BERROGEITA HAMABI ZENTIMOTakoa (86.109,52 €) da. Lan hauek INGESLAN, S.L.U. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Alkateak esaten du obra-egiaztagiri honetan obraren geldialdiaren ondoriozko gailuzko bat aurreikusi dela eta obraren geldialdi hori izan behar zuena eta izan denaren artean aldea dagoela eta beraz begiratu beharreako dela eta errebisatzeko konpromezu-arekin aurkezten dela obra-egiaztagiri hau bere onarpenera.

Albisu zinegotziak (EAJ) esaten du horixe dela eskatzen zutena eta beraz alde bozkatuko dutela.

Hau honela, osoko bilkurak, aho batez onartzen du obra-egiaztagiri hau.

V.- 6 H.J.A. -ITURGAITZAGA-N HIRIGINTZA EGIKARITZE HITZARMENA.-

Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 6 Hirigintza Jarduketa Area -Iturgaitzaga-n hirigintza egikaritze hitzarmena izenpetzea planteatzen da Lazkaoko Udala eta gune horretan sustatzaile diren Lazkao lantzen, S.A. udal elkarte, Etxeberrikoa Eraikuntzak, S.L. eta Agauntza Berri, S.L. enpresen artean.

Hitzarmen honen xedeak honako hauek dira:

- 1.- 6 H.J.A. -ITURGAITZAGA-gunean urbanizazio lanen 1 eta 2 faseak zein eremu hartuko duten, hauetan zein jarduera burutuko diren, bai eraikuntzari hala urbanizazioari dagokienean, eta hauek noiz egingo direnaren epeak zehaztea.
- 2.- Errotanda berria edo 3. fasea gaitzeko obraren egikaritzea eta honen inguruko jarduketa osagarriak, hala nola obra hauen finantzaketaren araubidea xedatzea.
- 3.- 4. fase gisa izendatutako urbanizazio lanen egikaritzea denboran atzeratzea, eta azkenik,
- 4.- Gunearen eraikuntza eta urbanizazioaren egikaritzearekin zerikusia duten beste atal batzuk zahaztea.

Gaia aztertu ondoren eta Hirigintza Batzorde Informatzailearen proposamenez, Osoko Bilkurak, aho batez, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 6 Hirigintza Jarduketa Area -Iturgaitzaga-n hirigintza egikaritze hitzarmena, Lazkaoko Udala eta gune horretan sustatzaile diren Lazkao lantzen, S.A. udal elkarte, Etxeberrikoa Eraikuntzak, S.L. eta Agauntza Berri, S.L. enpresen artean izenpetzekoa dena eta bere espedientean dagoena, onartzea.
- 2.- Alkatea ahalmentzea Lazkaoko Udalaren izenean hitzarmen hau izenpetu dezan.



VI.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 2 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du aspaldiko partez kreditu aldaketa baten aurka bozkatuko dutela eta gehitzen du honen arrazoa "nazioaren mundua"rentzat aurrikusten den dirulaguntza dela.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du bi punturen aipamena egin nahi duela hausnarketarako. Bat sasi-garbiketarako makinarena dela eta horrekin ados ez daudela gehitzen du eta beste alde batetik hausnarketa orokorra egin nahi duela eta gehitzen du kreditu aldaketa honekin diruzaintzako gerakinaren erdia jan egiten dela. Azkenik, esaten du, hori esanda kreditu aldaketa honen bozkatuko dutela.

Alkateak Estensoro zinegotziak esandakoei erantzunez esaten dio baietz, arrazoi duela eta baliabide murriztuagoetara ohitu beharko dugula eta Serna zinegotziari erantzunez esaten dio autodeterminazio eskubidearen alde daudela eta horren alde egitea bidezkoa ikusten dutela.

Garmendia zinegotziak, ingurugiro batzordearen presidentek, sasi-garbiketarako makinaren inguruko azalpenak ematen ditu.

Gaia eztabaidatu ondoren botutara jarri eta aldeko 12 botu (Bildu, EAJ) eta aurkako botu batez (PSE-EE), honako hau

ERABAKI DA

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 2 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
II	Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketa	55.850,00 €
IV	Transferentzia arruntak	21.200,00 €
VI	Inbertsio errealak	18.000,00 €

GEHIKUNTZAK GUZTIRA	95.050,00 €
----------------------------	--------------------

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
VI	Inbertsio errealeen besterentzea eta bestel.	22.128,32 €
VII	Kapital transferentziak	17.147,27 €
VIII	Finantza aktiboak	55.774,41 €
GUZTIRA		95.050,00 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

VII.- ABALAK EMAN AHAL IZATEKO AURREKONTUA EGIKARITZEKO UDAL-ARAUAREN ALDAKETA.-

6 H.J.A. -Iturgaitzaga-ko hirigintza garapena aurrera eramateko udal elkarte den Lazkao Lantzen, S.A.k mailegua eskatzea planteatzen da eta mailegu hau ematearen baldintzetako bat eragiketa hau udalak abalatu izatea izango dela aurrikusiz, 2012ko aurrekontuaren udal-araua aldatzea planteatzen da udalak bi milioi euro (2.000.000 €) arteko abalak eman ahal izatea jarritz.

Gaia aztertu ondoren eta ogasun batzorde informatzailearen proposamenez, udal osoko bilkurak, aho batez, 2012ko aurrekontuaren udal-araua aldatzea erabakitzen du, udalak bi milioi euro (2.000.000 €) arteko abalak eman ditzazkela ezarritz.

VIII.- LGTBQ KOLEKTIBOAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN INGURUKO MOZIOA.-

Mozioak honela dio:

"LGTBQ kolektiboaren NAZIOARTEKO EGUNA: Asakatasun sexualaren aldeko eguna

1968ko ekainaren 28a oso egun garrantzitsua izan zen gayen, lesbianen, transexualen, bisexualen, queerren eta abarren askapen-mugimendutzat. Izan ere, ekainaren 27tik 28rako gauean, New Yorken, "Stonewall" izeneko pubean, transexual, lesbiana eta gay talde bat matxinatu egin zen, poliziak kolektibo hori jazarri egiten zuela salatzeke, eta, horrela, beren eskubideak aldarrikatzeko. Poliziari aurre egin zioten beraz, poliziaren jazarpenari, irainei eta indarkeriari, hobeto esateko. Zenbait egunez, ordura artean beldurraren beldurrez ezkutaturik bizi behar izan zuten kalera atera ziren, beren izaeraz, beren itxuraz eta beren harremanez inolako lotsarik ez zutela ozenki esateko.

Gaur da LGTBQ (lesbikoa, gaya, transexuala, bisexuala, queerra) kolektiboaren askapenaren eguna eta, "harrotasunaren eguna" ere esaten zaio batzuetan. Ez dugu ahaztu be-



har historian zehar sexu-jardunbideen intsumisioak oso zigor gogorak jasan dituela, hau da, heteroarauetatik atera den jokabide oroko jazarpen gupidagabea pairatu dutela betidanik, baita genero-identitateko anbiguotasunak ere: trans pertsonak, mari-mutilak edo maritxuak deitu izan digute, eta gaur egun harrotasunez esaten ditugu horiek, hizkuntza gureganatuz.

Kontuan hartzekoa da Osasunaren Mundu Erakundeak 1990era arte itxaron zuela homosexualitatea patologien zerrendatik kentzeko. Ildo horretan, transexualitatea buru-gaixotasuntzat jotzen da oraindik ere, eta psikiatria-alorreko zenbait eskuliburuk (DSM eta CIE) *genero-disforia* dela diote. Ez dugu ahaztu behar mundu osoan kolektibo hori jazarrita dagoela: bortxaketa kolektiboak egiten dira lesbianak "sendatzeko", transexualak diskriminazioaren eta estigmatizazioaren biktima dira, eta batzuetan erahil ere egiten dituzte. Giza eskubideen kontu bat da, funtsezko eskubideen kontu bat alegia.

Gure sexualitatea askatasun osoz bizi nahi dugu, baina bide horretan oztopoak baino ez ditugu aurkitu orain artean. Azpimarratu nahi dugu herritar zintzoen eta gaiztoen arteko banaketa, lehen eta bigarren mailako herritarren arteko bereizketa alegia, oraindik ere indarrean dagoela gizarte patriarkal eta heterosexista honetan. Heteroarauaz kanpo kokatzen diren eta kokatzen garen guztiak estigmatizatuta gaude, eta guk errealitate horri aurre egin behar diogu, pertsona guztien askatasunean oinarrituko den Euskal Herria gauzatzeko.

Baina egun horrek gure lorpenak ere ekartzen dizkigu gogora, eta argitu beharrean gaude orain arte lortu dugun guztia LGTBQ kolektiboaren borrokaren emaitza izan dela, baita gure sexualitatea, ezarritako arauaz kanpo, askatasunez bizitzea erabaki dugun guztion borrokaren emaitza ere. Eta benetako askatasuna lortzen jarraitzeko ez dugu ahaztu behar pertsona guztien berdintasunaren oinarriaren gainean eraiki behar dugula, gizartea ez delako askea izango baldin eta berdintasunaren eta feminitatearen balioetan oinarritzen ez bada, pertsona guztien sexu-askatasuna ardatz nagusietako bat bihurtuta.

Horregatik, Bilduren Talde Politikoak honako erakunde-deklarazio hau proposatzen du:

1. Lesbiana, gay, transexual eta transgeneroen eskubide eta askatasun publikoen defentsa aldarrikatzea eta politikoki laguntzea, diskriminazioaren aurkako politika aktiboak bultzatuz sexu-orientazio eta sexu-identifikazio guztiak normalizatzeko, eta zeregin hori irekitasunez garatuz, indarreko aurreiritzi eta estereotipoak gainditzeko.
2. Informazio -eta sentsibilizazio- kanpainen bitartez, herritarren artean kontzientzia solidario berri bat sor dadin sustatzea, lesbiana, gay, transexual eta transgeneroekiko aurreiritzi eta errezelok ezabatzea eta jarrera-aldaketa ahalbidetuko duena, kolektibo horiek, egunetik egunera, berdintasunezko, askatasunezko eta errespetuzko baldintzetan jarduteko aukera izan dezaten, gainerako herritarrek bezala.
3. Udaleko ikastetxe eta hezitzaileen eskura beharrezko prestakuntza-programak, tresnak eta baliabideak jartzea, kolektibo horietako kideen bazterkeria saihesteko, eta, ildo horretan, ikasle guztiek beren nortasuna, afektibitatea, sexualitatea eta harremanak bete-betean garatzeko aukera izan dezaten bermatzeko.
4. Eskumenero agintariei transgenero, transexual, lesbiana eta gayen eskubide eta askatasunen defentsan jardun beharra dagoela jakinaraztea, sexua berresleitzeko pro-



zesuak osasun-sistema publikoan txertatuz, laneko diskriminazioaren aurka borrokatuz eta kolektibo horien gainerako errebindikazioak aintzat hartuz. Transexualak eta transgeneroak osasun-sistema publikoan txertatzea eta bermatu beharko litzateke, patologia oinarritutako ikuspegia alde batera utzita.

5. Zerbitzuetan aholkularitza juridiko egokia eskaintzea. Pertsona horien laneratzea erraztea, baldintza-berdintasunean lanera daitezzen bermatuz eta ekonomia, gizarte eta osasun baliabideak haien eskura jarritz.
6. Udal honek transexualitatearen despatologizazioaren aldeko erakunde-deklarazio bat onartu nahi du, genero-disforia DSM eta CIE psikiatria-eskuliburuetatik desagertu dadila exijitzeko, eta deklarazio hori Transexualitatearen Despatologizazioaren aldeko Nazioarteko Sarera eramateko konpromisoa ere hartu nahi du."

Udal Osoko Bilkurak, aho batez, mozioa onartu egiten du.

IX.- EKONOMI EGOERAREN AURREAN MOZIOA.-

Lazkaoko EAJk aurkeztutako mozioak honela dio:

"Azken urteetan, Euskal Herria, inguruko beste herrialde batzuk bezala, krisi ekonomiko eta finantzario larri batean murgilduta dago. Gure eskualdea, Euskal Herriko eta estatuko beste zonalde batzuk baino hobeto ari da krisi egoera hau pairatzen. Egoera hobeago honen arrazoietakoa bat aurreko krisialdian eskualdeko erakundeetatik (Goieki garapen agentzia eta Goierriko Herrien Ekintza Fundaziotik) egin zen lanari esker dela uste dugu. Erakunde publiko eta enpresa pribatuen arteko elkarlana izan da gure eskualdearen bereizgarri nabarmenetako bat eta orain arte izan dugun egoera ekonomiko eta sozial orekatua lortzeko zutabetako bat.

Egoera ez da erraza, geroz eta langabetu gehiago ditugu gure herrietan eta pertsona horriengan pentsatu beharra daukagu. Denon esfortzua behar da etorkizunari aurre egiteko.

Momentu honek, EAJ-PNVren ustetan, eragile guztien lana eta, are gehiago, elkarlana eskatzen du. Elkarlan hori gauzatzeko gure erakundeen parte-hartzea ezinbestekoa da. Udalek eta eragile ekonomiko eta sozialek beraien eskuetan dituzten baliabide guztiak erabili behar dituzte.

2012ko maiatzaren 23ko datuz, Eusko Jaurlaritzak diru-laguntzak atera ditu eskualde ikuspegitik enplegu plangintzak egiteko. Badirudi enplegu plangintza horiek gauzatzeko 14.000.000,00€ inguru bideratuko dituela datozen hilabeteetan. Baina horietara aurkezteko plangintza eginda eduki behar da alde aurretik. Eta eskualdeko herri bakoitzak hartu behar du plangintza horretan egoteko erabakia.

Horrelako aukerarik ezin dugu alde batera utzi. Gure eskualdean ditugun lanpostuei eutsi beharrean gaude eta, ahal dela, berriak sortu gainera.

MOZIOA

Hori horrela, Lazkaoko EAJ-PNVk zera eskatzen du:



- 1.- Udalak, gai honi duen garrantzia emanenez, udalgintzako plangintzetan lehentasuna eman diezaiola.
- 2.- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak Eskualdeko Enplegu Planak sustatzeko atera berri duen plangintzan LAZKAOKO udalak parte hartu dezala, eskualdeko erakunde eta beste udalekin elkarlanean.
- 3.- EAJk udalari eta eskualdeko erakundeei egiten dien lankidetzak eskaintza aintzat har dezala. EAJk duen esperientzia eta lanerako borondatea egoera zail honetan ere eskualdeko eragileen disposiziora jartzen du."

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du mozioarekin ados daudela eta onartu egingo dutela eta beraiek ere gehitu egiten direla gai honen garapenean laguntza ematera.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten hori horrela izanda mozioaren 3. puntuan "EAJk eta PSEK" izango litzakela.

Mendia zinegotziak (Bildu) esaten du ez daudela erabat ados EAJk egiten duen egoeraren irakurketarekin. Esaten du baita ere Euskal Herriaren egoera ekonomikoa larria dela baina faktore bat ahazten zaiela eta langile mugimenduak izan duen islada eta garrantzia dela. Esaten du hor dagoela baita ere mugimendu kooperatibistak eduki duen bilakaera eta Euskal Herrian egoera Estatuan baino hobea baldin bada langile mugimenduak izandako eraginagatik dela. Esaten du baita ere dirulaguntza hau eta honekin proposatzen den plana ez dela egokia zeren ezinezkoa dela hiru hilabetetan plan on eta tajuzko bat egitea eta iruditzen zaiela hau gehiago dela propaganda egiteko modu bat. Esaten du baita ere estrategiak eta planak egin beharko direla baina ez dirulaguntza dela eta hiru hilabeteaz azkar eta gaizki egin. Eta hirugarren puntuan EAJk eta PSE-EEK beraien esperientzia eta lanerako borondatea agertzen dutenean kezka sortzen zaiela esaten du, azken urteetan instituzioek zein bide jarraitu duten ikusita. Esaten du baita ere esanez dirulaguntzara iritsi ahal izateko aurkeztuko garela eta horretarako aurkeztu beharreko plana ere egingo dela baina mozio honi, beraiek egiten duten irakurketa horrengatik, ezezkoa emango diotela.

Estensoro zinegotziak esaten du bakar bakarrik esan nahi duela kooperatibagintza oso presente dutela eta bestalde beraiek ez dutela esaten plan hori hobetu ez daitekeenik baina datu objetiboa dela dirua jarriko dela eta hori aprobetxatu egin behar dela.

Serna zinegotziak esaten du harritu egin duela aditzeak plana egiteko denbora gutxi dagoela eta gehitzen behar bada denbora gutxi izango dela baina beste udal batzuek egin dituztela.

Guzti honen bozketan jartzen da gaia eta udal osoko bilkurak, aldeko 6 botu (EAJ, PSE-EE) eta aurkako zazpi botuz (Bildu) mozioa atzera botatzen da.

X.- "1512-2012 NAFARROAREN KONKISTA" IZENEKO ADIERAZPENA.-

"Ipuzkoar nafarrok" taldeak aurkeztutako mozioak honela dio:

Lazkaoko herri nafarrak, bere historia ezagutu eta berrikusteko abagunea izan duelarik, honako adierazpena egin nahi du:

2012an beteko dira 500 urte Gaztelako Albako dukearen tropek Nafarroa bereganatu zutela, Nafarroa Garaia eta Beherea inbadituz. Bai 1512ko inbasioa eta konkistak, bai eta aurretik jasan genituenak, gure herriaren Historiaren desitxuratzea eta memoria historikoren manipulazioa ekarri dute.

Estatuetako erakunde ofizialek data hori egungo oparotasun eta etorkizuneko zorientasunaren oinarri gisa azaldu nahi izan digute. Gure herriaren jatorria eta nortasunaren sorburua Espainiaren boterean dagoela sinestarazi nahi digute.

Lazkaotarrok, ordea, nafarroa ginen 1200. urtean gure borondatearen kontra Gaztelako historian agertu baino lehenagotik. Baskoiek Iruñeko erresuma sortzean hizkuntza, kultura, elkarbizitza eta lana garatzeko erakundez hornitu ginen, eta konkisten ondorioz, horiek guztiak suntsitu egin zizkiguten.

Euskaldunek Pirinioetako kulturaren oinarrituta sortu zuten Estatua, eta honek "*Santiago matamoros*" delakoarekin zerikusirik ez zuen eta ez dauka. Horrengatik guztiagatik adierazi nahi dugu gure nortasuna euskalduna dela, gure hizkuntza eta kultura hala diren bezala, eta euskaldun bezala, gure presentzia mundu zabalean nafar Estatuaren bitartez gauzatu izan dela.

Izan ginelako, garelako eta geroan ere izan nahi dugulako, izango direlako, Lazkaoko herriari, elkarte eta instituzio orori eskatzen diegu "1512-2012 Nafarroaren Konkista" izeneko adierazpenarekin bat egitea eta atxikimendua adieraztea. Batez ere:

- Agiriarekin bat eginez Nafar bandera eta *1512-2012 Nafarroa Bizirik* ekimenaren ikurra ikusgai jartzea urtean zehar.
- Eta, bereziki, 2012ko uztailaren 25ean, Albako Dukearen Armada nafar hiriburuan sartu ziren 500. urteurren egunean, nafar bandera haga erdian edota dolu-xingolarekin jartzea.

Eta aurreko guztia kontuan harturik, Ipuzkoar Nafarrok, Nabarralde, Nafarroa Bizirik ekimenak "*1512-2012 Nafarroaren Konkista*" izeneko adierazpena mozio bezala aurkezte du Lazkaoko Udalaren bilkuran onartua izan dadin:

"1512-2012 Nafarroaren konkista" adierazpena

Gertu dago armada gaztelar eta aragoarrek Nafarroako Erreinua konkistatu zuteneko bostehungarren urtemuga. Castilla, zabalkunde garaia bizitzen ari zen lurraldea zelarik, 152ko uztail hartan, haien Armadak Nafarroaren bihotza inbaditu zuten, mende batzuk lehenago bere mendebaldeko lurraldeekin egin zuten bezala. Gertakari horien ondorioz, Herri oso batek galdu zuen bere subiranotasuna.

Nafarroa herri askea zen; herri txikia, baina Pirinioetako bi aldeetan estrategikoki kokatuta; Gaztela eta bere hedatze nahia sortu baino askoz lehenagotik zegoena. IX. Mendean lurralde hauetako bizilagunek bere estatalitatearen hazia ezagutu zuten: Iruñeko Erresumaren egitura politiko-instituzionala, gero Nafarroako Erresuma izango zena.



Espainiar armada, Albako Dukearen agintepean, su eta gar sartu zen eta Luis Correak idatzitako konkistaren gaineko historian Villalba Koronelaren hitzetan jarria da armada inbaditzaileak erabili zuen basakeria: *"herriak erre zituzten, ehunka nafarrek alde egin behar izan zuen, emakumeak bortxatu zituzten, ondasunak konfiskatu zituzten, erbestera- tzeak behartu zituzten, exekuzioak ..."*. Nafar gazteluak suntsitu zituzten, nafarrentzat ba- karrik izan zitezkeen karguetan gaztelarrak jarri ziren. Herriek okupazio-armadaren gastu- ak ordaintzen zituzten "gerra gastuak" bailiran. Okupazio militarrek 100 urte iraun zuen, eta hori gaur arte luzatu da.

Hala era, mende luze hartan gaztelarren kontrako konspirazioak era izan ziren, nafarrak ziren, hemengo jendea, nahiz eta erregeordeek "euren lurraren aurkako erreboltariak" deitzen zieten. Konkista eta ondorengo garaia gogorra izan zen, kezka handikoa, eta ez baketsua. Honek kontraesanetan jartzen du "berdinen arteko hitzarmena" izan zela dioten bertsioa, "bat egite zoriontsua" asmo txarreko interpretazio historikoa da, azken batean, egungo Nafarroaren egoera legezkatat eman nahi baitu. Hori da, hain zuzen, gaurko hainbat instituzio ofizialen jarrera, data hori ospatu nahian, gaurko ustezko oparotasu- naren zein geroko zoriontasunaren iturburu gisa saldu nahi digutelarik.

Okupazioari egindako erresistentzia etengabekoa izan zen; egitandi gogoangarriak izan zirelarik, Amaiur defendatu zutenena kasu. Honez gain, geroztik eta eguna arte herri ho- nen estatusaren hondaketa-prozesuak aitzina segitu du, bere subiranotasuna barne, pro- bintzia bihurtzeraino eta egun, Autonomia Erkidego, ia-ia Nafarroa izena desagerraraziz.

Gaur, Nafarroa, Gaztelara libreki bildu zela dioten faltsukeriaren aitzinean, 2012an, Gaztela Nafarroa Garaia konkistatzen hasi zela 500 urte beteko direla gogora ekarri nahi dugu, data hura giltzarri izan zen gure estatalitatea indarrez hondarazteko. Gure mendeetako ibilaldia erakutsi nahi dugu eta kendu ziguten hura berreskuratzeko eskubidea dugula garbi adierazi; burujabetza galdu izana gure herriarentzat galbidea izan da.

Historiak independente izan ginela erakusten digu, eta izateari utzi geniola, ez gure arba- soen nahiaz, baizik eta gaztelar eta frantses nahikeria dela eta. Gerrak, kolonizazioak eta bortzak gure identitatearen garapena zapuztu dute. Eta, hain zuzen ere, gure interes na- gusia ez baita iraganean, orianean eta geroan baino, memoria historikoa berreskuratu nahi dugu askatasunerantz pausoa emateko eta gure eskubideak defendatzeko.

1512 hartatik ia bostehun urte joan dira, baina Nafarroa bizirik da eta, gaurkotasan osoz, honako eskaera luzatzen dugu: egungo nazioarteko testuinguruan, duela denbora gehiegi kendu ziguten nafar naziotasuna berreskuratu eta etorkizun askea izan.

Horregatik guztiagatik, deia bikoitza luzatu nahi dugu:

Batetik, dei egiten diegu jendeari, udalei eta gainontzeko talde zein erakundeei *1512-2012 Nafarroa Bizirik* ekimenaren ikurra ikusgai izatera.

Bestetik, dei egiten diegu pertsona, talde, elkarte, udal zein instituzio orori Agiri honi atxi- kitzera. Eta, bereziki, 2012ko uztailaren 25ean, Albako Dukearen Armada nafar hiriburuan sartu ziren 500. urteurrena, nafar bandera haga erdian edota dolu-xingolarekin jartzera."

Irastortza zinegotziak (EAJ) esaten du ados daudela Nafarroaren konkista armen bidez lortutako konkista izan zela esatearekin eta erabat ados daudela ordurarte Nafarro-

ako erresuma erabat independentea izan zela esatearekin eta ados daudela baita nafarrok beste euskaldunokin herri bat osatzen dugula esatearekin. Esaten du baita ere autodeterminazio eskubidea dugula berresten dutela munduko gainontzeko herrialdeek bezala, baina ez daudela ados nafar nazionalitatea eskatzearekin Euskadi delako gure aberria, hau da Euskal Herria. Eta guzti honengatik beraien jarrera mozio honen aurrean abstentzioarena izango dela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du aurka bozkatuko dutela ez datozelako bat independentismoarekin.

Esaten du baita ere mozioaren zati bat euskaraz bakarrik jaso duela eta esaten du baita ere kezkatu egiten dituztela ikusteak Udaletxea edozein gauza zintzilikatzeko erabiltzen dela geroz eta gehiago.

Mendia zinegotziak EAJk esandakoari erantzunez esaten du ez direla debate horretan sartuko, beraiek ez direla sartuko Euskadi, Euskal Herria, Baskonia edo Nafar Estatua izan behar duen eta hitzez hitz zehazki hartu beharrean mozioaren zentzuari begiratzen diotela gehiago eta mozioaren alde bozkatuko dutela.

Alkateak gehitzen du EAJk egin duen irakurketa ere oso positibotzat jotzen dutela.

Guzti honen ondoren gaia bozketan jartzen da eta udal osoko bilkurak, aldeko 7 botu (Bildu), aurkako botu batez (PSE-EE) eta bost abstentzioz (EAJ) mozia onartu egiten du.

XI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Jendartetik pertsona batek hartzen du hitza eta Iturgaitzagan egin behar den errotondaren aurkako bere iritzia azaltzen du.

XII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko bederatziak hoge gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



A handwritten signature in blue ink, written over the seal. The signature is stylized and appears to be the name of the official responsible for the document.